

BERRIKUNTZA+IKERKETA+OSASUNA EUSKAL FUNDAZIOAREN (BIOEF) LAGUNTZA DEIALDIA, GAIXOTASUN NEURODEGENERATIBOEN IKERKETA PROIEKTUETARAKO

Deialdiaren helburua:

Gaixotasun neurodegeneratiboen ikerketa biomedikoko proiektuetara zuzendutako laguntzak.

Onuradunak:

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako I+Gko ikastegi publiko eta pribatuak.

Ikertzaile nagusiaren baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu arloko lotura izatea.
- Proiektu bakarra aurkez dezake ikertzaile nagusi gisa.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak egin behar den proiektuaren gauzatze osoan zehar Unibertsitatearekin funtzionario, estatutu edo lan arloko lotura duela egiaztatu beharko du.

Ikertaldeko kideek eskaera eskatzeko unean besterik ez dute egiaztatu beharko beren lotura.

Laguntza gauzatzean UPV/EHUrekin beren lotura amaitzen duten ikertaldeko kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek dirauen artean. Ikertzaile nagusia arduratuko da laguntza gauzatzean sortuko diren bajak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan komunikatzeaz.

Diruz laguntzeko diren proiektuen baldintzak:

- Ezinbestekoa da gutxienez Euskadiko Osasun Sistemako erakunde batek parte hartzea.

Laguntzen zuzkidura:

376.948,80 euro.

Proiektuen iraupena:

Gutxienez 2 urte eta gehienez 3 urte.

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak helbide honetan izapidetuko dira: [Electrónicamente euskadi.eus](http://euskadi.eus) egoitzaren bidez, jarraian adieraziko diren helbideetan:

Gaztelania:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2017/proyectos_investigacion_enfermedades_neurodegenerativas/web01-a2ikerpr/es/

Euskara:

http://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2017/gaixotasun_neurodegeneratiboen_ikerketak_proiektuak/web01-a2ikerpr/eu/

Ikertzaile nagusia arduratuko da bere eskaera forman eta epean aurkezteaz, eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzara aurkeztutako dokumentazio guztiaren kopia eta bere jatorrizko ikastegiaren baimenaren jatorrizkoa pdf formatu elektronikoan bidaltzeaz, UPV/EHUtik kanpoko laguntzaileak badira.

Eskaerak aurkezteko epea:

2018ko urtarrilaren 02ra arte, asteartea.

UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA LORTZEKO PROZEDURA:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2017ko abenduaren 15a	Ikertzaile nagusia	<i>I a) eranskina-Eragile eskatzailearen ikertaldea bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan.</i> Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera zuzendu behar da mezuaren gaian "Gaixotasun neurodegeneratiboetarako deialdia-BIOEF 2017" adierazita. Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkeztutako langileek bateraezintasunik ez dutela egiaztatuko da eta ikertzaile nagusiarantz itzuliko zaio dagozkion oharrekin.
2017ko abenduaren 18a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	I a) eranskinaren azterketaren emaitza komunikatzea.
2017ko abenduaren 28a Data horretatik aurrera, ezingo da bermatu legezko ordezkariaren abalak behar duen dokumentazioa epean igortzea.	Ikertzaile nagusia	Dokumentazio guztia (memoria/eranskinak) convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera beteta bidaltzea errektoreordeak sinatzeko.

OHARRA: UPV/EHUkoak ez diren laguntzaileen kasuan, haien jatorrizko ikastegiaren baimena behar da.

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

Eredu normalizatuen arabera:

a) Ikerketa proiektuaren memoria eredu normalizatuan (I. eranskina), hala badagokio erakunde parte hartzaile bakoitzaren informazioarekin (I.a eranskina eta I.b eranskina). Era berean, proiektuaren memoria ingelesez onartuko da.

b) Ikertzaile nagusiaren curriculum vitae (II. eranskina) eredu normalizatuan (Osasun Sailaren eta Carlos III.a Osasun Institutuaren curriculum ereduak onartuko dira, baita Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioa-FECYT-en curriculum vitae normalizatuaren eredu ere).

c) Proiektua proposatzen duen ikertaldearen historial zientifiko eta teknikoaren memoria (III. eranskina) eredu normalizatuan.

d) Ikertzaile nagusiaren ikastegiko Ikerketa Batzordearen txostena, proiektuaren bideragarritasuna bermatuko duena.

e) Ikertzaile nagusiaren ikastegiko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordearen txostena, horrela behar denean.

f) Ikerkuntzarako Euskal Biobankuaren ziurtagiria, egiaztatuko duena, proiektuak giza jatorriko lagin biologikoak behar baditu, ikertzaile nagusiak Biobankuari eskatu diola deialdi honetako laguntza eskatzen den ikerketa proiekturako lagin biologikoak jasotzea eta/edo lagatzea.

Informazio gehiago:

Gaztelania:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2017/proyectos_investigacion_enfermedades_neurodegenerativas/web01-a2ikerpr/es/

Euskara:

http://www.euskadi.eus/dirug_laguntza/2017/gaixotasun_neurodegeneratiboen_ikerketa_proiektuak/web01-a2ikerpr/eu/

Harremana Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioan:

BECeko (Bilbao Exhibition Centre) dorrea
Azkue Kalea 1, 48902 Barakaldo
tel.: 94.453.85.00
faxes: 94.453.04.65

Harremana UPV/EHUn:

Tel.: 94 601 80 08
Faxes: 94 601 58 56
Posta elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus